



Jubilatu Etxeko zuzendaritzako kideak batzarrean Manuel Fernandez lehendakariarekin, eta Alkatea eta Ongintzako lehendakaria.

Jubilatu Etxea berri eta ordenadore gela internetarekin, 2004rako asmo nagusiak

■ Jubilatu Etxeak gela polibalente bat jartzeko asmoa dute, hitzaldiak, kultur ekitaldiak, bideo-gela eta abar jartzeko ■ Jubilatu Etxea da Hernaniko elkarterik haundiena eta urteko batzarra egin berri du.

JUBILATU Etxeak urteko batzarra egin du eta gehiengo haundiz onartu ziren zuzendaritzaren balantze eta proposamenak. Hernaniko elkarterik haundienak erronka anbizioak ditu aurrera begira, eta horietako batzuk aurreratu ditu gainera. Manuel Fernandez lehendakariak adierazi zuenez, batetik, Jubilatu Etxeko sarrera berri egingo dute eta portal bat egin. Barruan ere, inmobiliario berria sartuko dute eta ordenagailu gela bat jartzen ari dira, internetarekin ere izango duena edadeko jendeak ere teknologia berriak erabiltzeko. Zentzu honetan, informatika ikastaroak emateko asmoa dute. Sarrerako obrak Inauteriak pasata laister hasiko dira, eta ordenadore gela hilabete eta erdian martxan egon liteke.

Beste proiektu garrantzitsu bat erabilpen askotako gela edo gela polibalente bat jartzea da, hitzaldiak, antzerkia, kultur ekitaldiak, eta bideo emanaldiak antolatuz. Bestalde, Goiz Eguzkiko bulegoa informatizatu nahi dute eta dauden zerbitzuak hobetu egin nahi dituzte: ileapaindegia, tentsio hartzea, oinak zaintzeko, eta sukaldea, besteak beste.

Erakundeen babesa

Joxan Rekondo Alkatea eta Andoni Amonarraiz Patro-



Aurten ere jende asko bildu da urteko batzarrean.

natuko lehendakaria izan ziren batzarrean eta Jubilatu Etxeko aktibitatea txalotu dute. Era berean, adierazi dute beren eskakizunei erantzun zezaten. Erakunde publikoek Goiz Eguzki elkarlan estua agindu dute.

Egoitza atsegina egin

Goiz Eguzkiren helburua da "aurrekoen lanari jarraitu eta Egoitza ahalik eta atsegina egiten saiatzea". Asmo horretan hainbat zerbitzu eskaintzen zaizkie bazkideei. Taberna martxan dute baina zuzendaritzak adierazitakoren arabera, azken aldian ez dute zorte haundirik izan tabernako arduradunekin eta aurtengo erronketako bat izango da taberna zerbitzua irau-

araztea. Horrekin batera musika emanaldiak, hitzaldiak, ibilaldiak, egunetako biak, karta txapelketak, ekitaldi, bola, toka eta igela jokok eta abar ere izaten dira.

2.400 bazkide

Ostiraleko batzarrean iazko urtearen balantzea egin zuten. Balantzeren arabera, Goiz Eguzkiko zentro soziala gaur egun 2.400 bazkide daude eta horietatik 1.800 dira zentroaren eguneroko bizitzan parte hartzen dutenak. Aurten gainera, 48 bazkide gehiago dituzte. Goiz eguzkira egunero 350 bat pertsona joaten dira, baina igandetan, dantza edota telebistan kirol saioak daudelako, 600 lagun izaten dira. □

JENDE MUGIMENDUA

2.400 bazkide eta egunero bizitzan 1.800 pertsona. Egunero 350 lagun ibiltzen dira eta 600 igandetan. Bidaletan, 1.300 gora ibili dira eta kontzertuetan erabat bete da gela

ZERBITZUAK

Taberna, tentsio hartzea, hankak zaintzea, tailerra, sukaldea, ileapaindegia, gimnasia,

2003ko AKTIBITATEAK

Bidaiek, karta txapelketak; bola, toka eta igel jokoa; musika emanaldiak eta bai-lea, besteak beste

Gobernu Batzarrek garbiketa kontratuen inguruko hainbat erabaki hartu ditu

GOBERNU Batzarra izan zen pasa den ostiralean eta bertan hainbat udal eraikin garbitzeko zerbitzuen kontratuen inguruan hainbat erabaki hartu ziren. Traspasan izeneko erakina, orain Hezkuntza, Formakuntza eta Lan Sailekoa dena, Eulen izeneko enpresa batek garbitzea erabaki zen. Bestetik, Limpiezas Elurra S.L.ri fidantza itzultzea eta Lappset España V.R. S.L.ri abala itzultzea erabaki zen. Hartutako beste erabaki bat izan zen, herriko parke eta lorategiak mantentzeko zerbitzuen kontratua aldatzea. Horrela udal lorazainek Nereborda, Atarrabilo parkea eta rotondak guneetaz arduratuko dira eta Goroldio koadrilak gainontzeko tokietan egingo du lan. Azkenik, Elizatxo Auzoko 37, 38, 43, 44, 47 eta 48 zenbakietako zerbitzu sareak berri eta berriz urbanizatzeko lanak Erga enpresari adjudikatu dizkio Gobernu Batzarrek. □

PELOTA

Hernanik aurreneko kanporaketa pasa du

BERRIA Txapelketako aurreneko kanporaketa jokatu zen pasa den ostiralean kiroldegian eta hernaniarrak pozik egoteko motiborik badute, Bergarako taldearen kontra jokatutako aurreneko kanporaketa pasa dute-eta. Kadete mailan, Paul Ojuelek eta Izadi Grajalek 22 eta 6 irabazi zuten; jubenil mailan, Xabier Erdozio eta Aitor Gorrotxategik 22 eta 9 irabazi zuten Bergarakoen aurka eta nagusietan, Oier Mendizabalek eta Unai Albarezek 22 eta 16 galdu zuten. □

Irakasle bat behar da

akademia batean

DBHkoei klaseak emateko

☎ 943 336090

URUMEA IKASTOLA



Haur Hezkuntza (2-6), Lehen Hezkuntza (6-12), eta DBH (12-16)

Matrikula: otsailaren 16tik 27ra bitarte

Non: Urumean (Gay Mur eraikina, Larramendi 18)

Orduetgia:

09:00-12:00 / 14:30-16:30 (ikastetxea ikusteko aukera)

Telf: 943 55 04 72



Likidazioak otsailaren 20tik aurrera.

Hainbat tresna salgai:
- Mural frigorifikoa (motorra kanpoan dagoena)
- Arko Konjeladore bat
- Kortadora
- 2 pixu (1000 PLU memoriarekin)
- Zintzilikatzen den pixua
- Estanteriak egurra, ispilua eta argiarekin eta normala argiarekin

INFORMAZIO GEHIAGO
943 55 01 36 - 699 82 91 98



Elizatxo 12 - Florida 18



→ Matrikula: Otsailaren 16tik 27ra bitartean.

→ Non: Elizatxo 12 (HH-LH) - Florida 28 (BHI)

→ Orduetgia: 09:00 - 12:30 / 14:30 - 16:30

→ Telefonoak: HH-LH: 943 55 72 24 - BHI: 943 55 26 33

Informazio gehiago: www.elizatxolikastola.com



Aurrerako kideak Udaletxean egindako omenaldian, jasotako oroigarriekin.

Konpartsa festa gaur kaleetan barrena

■ Aurrera taldea, Ttarla, Unai, Elizatxo, Urumea eta Langile ikastolako konpartsak aterako dira ■ Inmaculada ikastetxea ez da ari inauteriak ospatzen, doluagatik.



Atzo batek baino gehiagok eraman zuten bizkarra bero-bero etxera.



Kalean barrena pasiatu eta horrelakoak ikusi zitezkeen atzo.

KONPARTSAK izango dira gaur inauterietako protagonita Hernanin. Eguerdiko 12:00-etan hasita, Aurrera taldeak, Ttarlak, Unai, Elizatxo, Langile eta Urumea ikastolak girotuko dute festa kalean. Hutsune bat ere da gaur, beste zenbait ekitaldietan bezala. Inmaculada ikastetxea ez da ari ekitaldietan parte hartzen Iban Rodriguez ikaslearen heriotzagatik. Inauteriak hasteko ekitaldian, pregoilari gazteek beren elkartasuna adierazi zioten Iban Rodriguez zenaren familiari eta Inmaculadako irakasle, ikasle eta gurasoei. Ekitaldi horretan, Aurrera taldeak omenaldia jaso zuen ezindu psikikoei laguntzeko egiten duen lanagatik.

Gaur arratsaldean, bestalde, haurrentzako berbena izango da Plaza Berrian, 17:30etan eta iluntzean Musika Eskolako trikitilari eta dultzaineroek girotuko dute kalea.

Bihar eta etzi ere izango dira ekitaldiak. Astelehenean, goizeko 10:00etan azeri dantza eta 12:00etan Potxin eta Patxin pailazoak izango dira Biteriko plazan. Arratsaldean, erraldoi eta buru-haundiak eta umentzako *Klaketa* antzerkia. □

■ HITZ BITAN

✓ OBRAK

Balantxako bidea moztuta bihartik aurrera. Balantxan etxe berriak eraikiko dituzte eta bihartik aurrera itxita egongo da Balantxako aldapako karretera, obrak bukatu arte. Hala ere, astebukaeretan irekita egongo da.

✓ KINTO BAZKARIA

53ko kintoek bazkaria gaur. 53ko kintoek meza eta bazkaria dute gaur. Meza goizeko 11:00etan da Parrokian, hildako kintoen alde eta familiar guztiak gonbidatuak daude. Eguerdian bazkaria egingo dute Txantxangorri Elkartearen.

✓ ZINEA BITERIN

'Las mujeres de verdad tienen curvas' pelikula gaur. Arratsaldeko 19:30etan Biterin. □

ESKERTZA

Jose Maria Rios Zabaleta

Otsailaren 17an hil zen

Jose Mariaren senitartekoei eskerrak ematen dizkizuegu modu batera edo bestera gurekin izan zareten guztioi, eta zuen laguntza eta babesa eman diguzuen denoi. Eskerrik asko.

Jose Mariaren familia

Hernanin 2004ko otsailaren 22an

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK
☛ Taxiak: 943 550093	☛ Egunez: Correa
☛ Udaltzaingoa: 943 333288	Perkaiztegi 8
☛ DYA: 943 464622	☎ 943 551933
☛ Autobusak: 943 556662	☛ Gaez: Rodriguez
☛ Anbulatorioa: 943 006666	Lasarte. Nagusia 42
☛ Jokalari anonimoak: 943 331103	☎ 943 361774

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia, ...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Hernaniko estetika zentru batean arratsaldez lan egiteko neska bat behar dugu. Deitu: 619 32 35 26 - 943 55 15 44

Sagastialden 50m2ko pisua salgai. Kanpokaldera, 2 gela, sukaldea, komona, jangela-sala. Agentziek ez deitu. Tel: 630 78 24 62

Pertsona euskalduna behar dugu etxeko lanak egin eta 2 ume zaintzeko. Goizeko 7:00etatik 14:00etara. Tel: 606 33 85 45

Etxea salgai Latxunbeberri. Ezin hobeto. 105 m2 erabilgarri + terraza 30 m + jardina 60 m + trasteroa 12 m2. 55.500.000 pta. Garaje itxia 3.300.000 pta. Tel: 651 70 88 84

Kotxea salgai. Ford Orion marka. 10 urte dauzka. Gasolina. Merke. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 659 84 02 00 (Maxux)

Zikuñagan etxea salgai, 4 logela, sala, komona eta sukaldea. Dena kanpokaldera. Eguzkia egun osoan. Berritzeko. Aukera, bigarren etxea edo izugarritzko terraza. 24.500.000 pta. Deitu: 665 713658 (10:00-12:00 edo 17:00-20:00)

Urnietako

SALESIAR IKASTETXEA

Tfno. 943 551 789

12 urtekin hasi...
eta lanean edo unibertsitatean sartu arte !!

DBH/ESO

BATXILERGOA / BACHILLERATO:

Teknologikoa
Natur eta Osasun Zientziak
Humanistikoa

LANBIDE HEZIKETA / FORMACIÓN PROFESIONAL:
(Erdi eta Goi Mailako Zikloak)

Elektrizitate / Elektronika
Mantenimendua
Grafikagintza

Ikastetxea ezagutzeko: Otsailak 18 - 19:00etan

SANTA BARBARA

PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi15 - Exp: Arantzazu 15 ☎ 943 551139 / 943 551979

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoez aldatzen ditugu

● 307 SW	HDI 110	CFL	17.730 €	(2.950.000 pztza)
● 206 GTI metaliz.	2.0	BPB	11.420 €	(1.900.000 pztza)
● 206 X-LINE Sate	1.2	CMH	9.600 €	(1.597.000 pztza)
● Rover 45	2.0 TDI	SS-BK	9.016 € 57	(1.500.000 pztza)
● SAAB Coupe 900 S 2.0	2883 BJR		5.812 € 95-80	(967.000 pztza)
● 406 SRDT	1.9 Diesela	SS-AY	4.808 € 97	(800.000 pztza)
● Ford Escort	TD	SS-AY	4.507 € 97	(749.000 pztza)

... eta hainbat kotxe merke

LARUNBAT GOIZEAN IREKITA DAGO

Zapa 8 - ☎ 943 33 15 06